

# Gobernuak osasun arloko langileentzako enplegu publikoaren lan eskaintza partziala onartu du, 219 plazarekin

Gainera, beste 23 erreserba-txandarako bideratuko dira bai desgaitasuna duten pertsonentzat nai genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat

**Asteazkena, 2019ko Abenduaren 11a**

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran foru dekretu bidez onartu du osasun arloko langileentzako enplegu publikoaren lan eskaintza partzial bat (2019. urteari dagokiona), guztira 219 lanposturekin. Era berean, beste 23 erreserba-txandarako bideratuko dira; horietatik 15 desgaitasuna duten pertsonentzat izango dira, eta gainerako 8ak, berriz, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzat.

## NOZ-O eta Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua

Lantokiaren arabera, dauden 219 plaza guztietatik 215 Nafarroako Osasun Zerbitzua-Osasunbidearentzat (NOZ-O) dira eta beste 4 Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuarentzat (2 Osasun Publikoaren ikuskatzaile —albaitaritza espezialitatea— eta beste 2 erizain).

Bestalde, NOZ-Oren 215 plazetatik 1 Zerbitzu Zentraletarako izango da, 70 Lehen Arretarako, 87 Nafarroako Ospitale Gunerako, 31 Tuterako Osasun Arlorako, 14 Lizarrako Osasun Arlorako eta 12 Osasun Mentalerako.

Espezialitateei erreparatuta, NOZ-Oren 215 plazak honela zehaztuko dira:

Arloko/Ondoko 80 fakultatibo espezialista: Psikiatriako 7, Erradiodiagnostikoko 5, Barne Medikuntzako 5, Anestesia eta Erreanimazioko 4, Hematologia eta Hemoterapiako 4, Digestio Aparatuko 3, Kirurgia Ortopedikoko eta Traumatologikoko 3, Mikrobiologia eta Parasitologiako 3 eta Onkologia Medikoko beste 3. Horiz gain, 2 plaza izango ditu ondorengo espezialitate bakoitzak: Analitika Klinikoa, Anatomia Patologikoa, Kardiologia, Kirurgia Orokorra eta Digestio Aparatua, Kirurgia Plastikoa, Dermatologia Mediko-Kirurgikoa eta Benerologia, Endokrinologia eta Nutrizioa, Ospitaleko Farmazia, Medikuntza Intentsiboa, Medikuntza Nuklearra, Nefrologia, Neurofisiologia Klinikoa, Oftalmologia, Otorrinolaringologia, Pediatria eta haren arlo espezifikoak, Ospitaleko Erradiofisika eta Erreumatologia.

Halaber, plaza 1 izango dute espezialitate hauetako bakoitzak: Angiologia eta Kirurgia Baskularra, Kirurgia Pediatrikoa, Bularraldeko Kirurgia, Genetika, Medikuntza Fisikoa eta Errehabilitazioa, Neumologia, Neurokirurgia, Neurologia eta Urologia.

Lehen Arretako 26 Espezialista (LAE): Lehen Arretako 23 Medikuei eta Lehen Arretako 3 Pediatra.

Era berean, Larrialdietako medikuei (12) dagokienez, 10 plaza egongo dira Larrialdietako Zerbitzu Berezirako eta beste 2 Larrialdietako Ohiko Zerbitzurako.

70 plaza Erizaintzarako (horietatik 5 espezialitate obstetrikoginekologikorako -emagina-).

27 plaza bestelako osasun-espezialitateetarako: 7 plaza Erradiologiako Teknikari Espezialistarako, 6 plaza Psikologo Espezialista Klinikorako, 6 plaza Anatomia Patologikoko Teknikari Espezialistarako, 4 biologo klinikorako eta 4 Fisioterapeutarako.

## 23 plaza erreserba-txandarako

Modu berean, 23 plaza erreserbatuko dira; horietatik 15 %33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonentzat izango dira eta gainerako 8ak genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzat.

Zehazki, desgaitasuna duten pertsonentzako 15 plaza honela banatuko dira: Barne Medikuntzako 1, Psikiatriako 1, Erradiodiagnostikoko 1, Lehen Arretako Medikuei bezala lan egiteko 1, Larrialdietako Zerbitzu Bereziko Medikuei izateko 1, Larrialdietako Ohiko Zerbitzurako 1, 5 plaza Erizaintzarako, plaza 1

---

Fisioterapeutarentzat, plaza 1 Anatomia Patologikoko Teknikari Espezialistarentzat eta 2 plaza Erradiologiako Teknikari Espezialistarentzat.

Bestalde, genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeentzako 8 plaza honela banatuko dira: 4 plaza Erizaintzarako, 2 plaza Anatomia Patologikoko Teknikari Espezialistarentzat eta beste 2 plaza Erradiologiako Teknikari Espezialistarentzat.

🗨️ Gobernuak osasun arloko langileentzako enplegu publikoaren lan eskaintza partziala onartu du, 219 plazarekin